



# EUSKADIKO UDAL ARLO PUBLIKOKO AURREKONTU-ANALISIA

## ANÁLISIS PRESUPUESTARIO DEL SECTOR PÚBLICO MUNICIPAL DE EUSKADI

2013





**EUSKADIKO UDAL-ARLO PUBLIKOA 2013**  
**SECTOR PÚBLICO MUNICIPAL DE EUSKADI 2013**

**AURKIBIDEA / ÍNDICE**

HITZAURREA/INTRODUCCIÓN .....	1
DIRU-SARRERAK/INGRESOS	
ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA/ANÁLISIS GLOBAL Y POR TERRITORIOS .....	7
POPULAZIO-MAILAREN ARABERAKO ANALISIA/ANÁLISIS POR ESTRATOS DE POBLACIÓN .....	17
GASTUAK/GASTOS	
ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA/ANÁLISIS GLOBAL Y POR TERRITORIOS.. ..	25
POPULAZIO-MAILAREN ARABERAKO ANALISIA/ANÁLISIS POR ESTRATOS DE POBLACIÓN .....	31
ZORPETZEA/ENDEUDAMIENTO .....	35
EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA/SITUACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA .....	39
ZERGA ITUENDUETAKO PARTAIDETZA/PARTICIPACIÓN EN TRIBUTOS CONCERTADOS .....	43
ERANSKINA / ANEXO	

## **KOADROEN INDIZEA/ INDICE DE CUADROS**

<b>1.koadroa Entitateen lurralde banaketa eta sailkapena</b> cuadro nº 1 Clasificación y distribución territorial de las entidades .....	2
<b>2.koadroa Populazioaren banaketa</b> cuadro nº 2 Distribución de la población .....	3
<b>3.koadroa Udalen sozietate publikoak. Entitateen jardueraren lurraldekako sailkapena</b> cuadro nº 3 Sociedades Públicas municipales. Clasificación y distribución territorial de entidades .....	4
<b>4. koadroa Udalaz gairako enpresak. Jardueraren sailkapena</b> cuadro nº 4 Empresas supramunicipales. Clasificación por actividad .....	5
<b>5. koadroa Diru-sarreraren bilakaera</b> cuadro nº 5 Evolución de los ingresos .....	7
<b>6. koadroa Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera</b> cuadro nº 6 Clasificación económica de los ingresos: Evolución .....	8
<b>7. koadroa Diru-sarreraren iturri nagusiak</b> cuadro nº 7 Principales fuentes de ingreso .....	11
<b>8. koadroa Biztanleko diru-sarrerak</b> cuadro nº 8 Ingresos por habitante .....	15
<b>9. koadroa Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoa: Bilakaera</b> cuadro nº 9 Clasificación económica de los ingresos: Evolución .....	17
<b>10. koadroa Biztanleko eta populazio-mailen arabeko presio fiskala</b> cuadro nº 10 Presión fiscal por habitante y estrato .....	20
<b>11. koadroa Zerga-bilketaren eraginkortasuna</b> cuadro nº 11 Eficacia recaudatoria .....	21
<b>12. koadroa Presio fiskal handiena duten udalerriak</b> cuadro nº 12 Municipios con mayor presión fiscal .....	22
<b>13. koadroa Gastuen bilakaera</b> cuadro nº 13 Evolución de los gastos .....	25
<b>14. koadroa Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera</b> cuadro nº 14 Clasificación económica de los gastos: Evolución .....	26
<b>15. koadroa Udal-arlo publikoen okupatuak</b> cuadro nº 15 Ocupados del sector público municipal .....	27
<b>16. koadroa Biztanleko gastuak</b> cuadro nº 16 Gastos por habitante.....	29
<b>17. koadroa Gastuen sailkapen ekonomikoa: Bilakaera</b> cuadro nº 17 Clasificación económica de los gastos: Evolución .....	31
<b>18. koadroa Zorpetze indizea (Análisi orokorra)</b> cuadro nº 18 Índice de endeudamiento (Análisis global) .....	35
<b>19. koadroa Zorpetze indizea (Populazio-mailaren arabera)</b> cuadro nº 19 Índice de endeudamiento (Por estratos de población) .....	36
<b>20. koadroa Zor bizi formalizatua (Análisi orokorra)</b> cuadro nº 20 Deuda viva formalizada (Análisis global) .....	36
<b>21. koadroa Zor bizi formalizatua (Populazio-mailaren arabera)</b> cuadro nº 21 Deuda viva formalizada (Por estratos de población) .....	37
<b>22. koadroa Ekonomia eta finantza egoera (Análisi orokorra)</b> cuadro nº 22 Situación Económico-Financiera (Análisis global) .....	39

<b>23. koadroa Ekonomia eta finantza egoera (Populazio-mailaka)</b> cuadro nº 23 Situación Económico-Financiera (Por estratos de población) .....	40
<b>24. koadroa Zerga itunduetan parte-hartzea</b> cuadro nº 24: Participación en tributos concertados .....	44
<b>25. koadroa Zerga itunduetan parte-hartzearen bilakaera</b> cuadro nº 25: Evolución de la participación en tributos concertados .....	45
<b>26. koadroa Zerga itunduetako partaidetza biztanleko eta populazio-mailaka</b> cuadro nº 26 Participación en tributos concertados por habitante y estrato .....	46

## **GRAFIKOEN INDIZEA/ INDICE DE GRÁFICOS**

<b>1. grafikoa Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa: Egitura</b> gráfico nº 1 Clasificación económica de los ingresos: Estructura .....	10
<b>2. grafikoa Diru-sarrerren lurralde banaketa</b> gráfico nº 2 Distribución territorial de los ingresos .....	11
<b>3. grafikoa Udal zergak diru-sarreretan</b> gráfico nº 3 Los impuestos municipales en el total de ingresos .....	12
<b>4. grafikoa Zuzeneko zergak</b> gráfico nº 4 Impuestos directos .....	13
<b>5. grafikoa Transferentzia arruntak diru-sarreretan</b> gráfico nº 5 Las transferencias corrientes en el total de ingresos .....	13
<b>6. grafikoa Kapital transferentziak diru-sarreretan</b> gráfico nº 6 Las transferencias de capital en el total de ingresos .....	14
<b>7. grafikoa Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa: Egitura</b> gráfico nº 7 Clasificación económica de los ingresos: Estructura .....	18
<b>8. grafikoa Biztanleko diru-sarrerak</b> gráfico nº 8 Ingresos por habitante .....	19
<b>9. grafikoa Gastuen sailkapen ekonomikoa: Egitura</b> gráfico nº 9 Clasificación económica de los gastos: Estructura .....	28
<b>10. grafikoa Gastuen lurralde banaketa</b> gráfico nº 10 Distribución territorial de los gastos .....	29
<b>11. grafikoa Gastuen sailkapen ekonomikoa: Egitura</b> gráfico nº 11 Clasificación económica de los gastos: Estructura .....	32
<b>12. grafikoa Gastuak biztanleko</b> gráfico nº 12 Gastos por habitante .....	33



Azterlan honetan udal-arlo publikoan sartu diren entitateak honako hauek dira:

- Udalerriak
- Udalerrien mendeko Erakundeak
  - Erakunde Autonomoak
  - Udal-sozietate publikoak
  - Toki-erakunde txikiak
- Udalerrri-elkartek
  - Koadrilak
  - Mankomunitateak
  - Partzuergoak
  - Udalerrri bat baino gehiago kide duten sozietate publikoak edo udalaz gaindiko sozietateak

Sozietate Publikoak kontuan hartuko dira, Udalen kapital sozialeko partaidetza % 50etik gorakoa bada.

2013. ekitaldiari dagozkion udal-entitateen aurrekontu-likidazioetako datuak, onartutako eskubideak eta obligazioak, aurkeztu dira. Datu horiek Eustatek bildu ditu “Sektore publikoaren aurrekontuen estatistika” eragiketan. Biztanleriari eta Barne Produktu Gordinari buruzko informazioa aipatutako erakunde berak argitaratu du.

2012. eta 2013. urteen artean, aztertu den udal-sozietate publikoen eta udalaz

Las entidades consideradas en el sector público municipal objeto de este estudio son las siguientes:

- Municipios
- Entes dependientes de Municipios
  - Organismos Autónomos
  - Sociedades Públicas Municipales
  - Entidades Locales menores
- Agrupaciones de Municipios
  - Cuadrillas
  - Mancomunidades
  - Consorcios
  - Sociedades Públicas en las que participa más de un municipio o sociedades supramunicipales

Se incluyen únicamente las sociedades públicas en las que la participación municipal en su capital social supera el 50%.

Se presentan datos del ejercicio 2013, derechos y obligaciones reconocidas, de las liquidaciones presupuestarias de las entidades municipales recogidos por el EUSTAT en la operación “Estadísticas presupuestarias del sector público”. La información sobre población y Producto Interior Bruto es la publicada por el citado organismo.

Entre 2012 y 2013 el número de entes municipales y supramunicipales

gaindiko sozietateen kopuruak ez du izan aldaketa esanguratsurik, 5 gutxiago izan dira.

Araban 4 udal-elkarte gutxiago dira eta udal-enpresa 2 gehiago. Bizkaian entitate kopurua gutxitu da; erakunde autonomo bat eta udal enpresa bat. Azkenik, Gipuzkoan 5 erakunde-autonomo desagertu dira eta 4 udal-enpresa sartu dira.

estudiados no ha variado significativamente, contándose 5 menos.

En Álava baja en 4 el número de agrupaciones de municipios y sube en 2 el número de empresas. En Bizkaia se reduce un organismo y una empresa. Por último en Gipuzkoa destaca la desaparición de 5 organismos autónomos y la incorporación de 4 empresas.

### 1. KOADROA / CUADRO Nº1 ENTITATEEN LURRALDE BANAKETA ETA SAILKAPENA CLASIFICACIÓN Y DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DE LAS ENTIDADES

	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA TOTAL
<b>UDALERRIAK / MUNICIPIOS</b>	51	112	88	<b>251</b>
<b>TOKIKO ENTITATE TXIKIAK / ENTIDADES LOCALES MENORES</b>	332	0	1	<b>333</b>
<b>ERAKUNDE AUTONOMOAK / ORGANISMOS AUTÓNOMOS</b>	7	52	45	<b>104</b>
<b>UDAL-ENPRESAK / EMPRESAS MUNICIPALES</b>	16	48	59	<b>123</b>
<b>UDAL-ELKARTEAK / AGRUP.DE MUNICIPIOS</b>	30	17	25	<b>72</b>
<b>UDALERRI-ELKARTEEN ENPRESAK /EMPRESAS DE AGRUP. DE MUNICIPIOS</b>	0	5	13	<b>18</b>
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>436</b>	<b>234</b>	<b>231</b>	<b>901</b>

Analisis lurralde historikoka eta mailaka egin da. Horretarako Udalak 5 multzotan banandu dira

El análisis se ha realizado por territorio histórico y por estrato de población, habiéndose distribuido los Municipios en 5 grupos.



## 2. KOADROA / CUADRO Nº2 POPULAZIOAREN BANAKETA / DISTRIBUCIÓN DE LA POBLACIÓN

	Estrato 1		Estrato 2		Estrato 3		Estrato 4		Estrato 5		GUZTIRA / TOTAL
	<=1000 (bizt./hab.)	%	de 1.001etik a 5.000ra (bizt./hab.)	%	de 5.001etik a 20.000ra (bizt./hab.)	%	>20.001 (bizt./hab.) (Hiriburuak ezik/ exc. Capitales)	%	Hiriburuak/ Capitales (bizt./hab.)	%	
<b>ARABA / ÁLAVA</b>											
UDALERRIAK /MUNICIPIOS	28	%54,9	19	%37,2	3	%5,9			1	%2,0	<b>51</b>
POPULAZIOA / POBLACIÓN	12.508	%3,9	34.790	%10,9	33.872	%10,6			238.862	%74,6	<b>320.032</b>
<b>BIZKAIA</b>											
UDALERRIAK /MUNICIPIOS	39	%34,8	40	%35,7	22	%19,7	10	%8,9	1	%0,9	<b>112</b>
POPULAZIOA / POBLACIÓN	20.279	%1,8	96.576	%8,4	229.797	%20,1	453.119	%39,6	344.443	%30,1	<b>1.144.214</b>
<b>GIPUZKOA</b>											
UDALERRIAK /MUNICIPIOS	32	%36,4	22	%25,0	28	%31,8	5	%5,7	1	%1,1	<b>88</b>
POPULAZIOA / POBLACIÓN	12.600	%1,8	48.203	%6,8	296.191	%41,8	171.240	%24,2	180.397	%25,5	<b>708.631</b>
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>											
UDALERRIAK /MUNICIPIOS	99	%39,4	81	%32,3	53	%21,1	15	%6,0	3	%1,2	<b>251</b>
POPULAZIOA / POBLACIÓN	45.387	%2,1	179.569	%8,3	559.860	%25,8	624.359	%28,7	763.702	%35,1	<b>2.172.877</b>

ITURRIA: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika  
FUENTE: EUSTAT. Estadística municipal de habitantes

Lurralde-berezitasunak daude populazioaren banaketari dagokionez: Araban, populazioaren % 75 hiriburuan dago belduta; Bizkaian aldiz, populazioaren % 30 hiriburuan bizi da baina % 70era iristen da 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk hartzen baditugu; azkenik, Gipuzkoan, hiriburuan % 26a biltzen da eta, 20.000 biztanle baino gehiagokoekin, % 50era heltzen da.

2013.urtean EAEko udalerririk guztiek iazko populazio-maila berberean jarraitzen dute:

Txosten honetan, lurralde historikoko egiten den analisiak barne hartzen ditu udal-entitateen eta udalaz gaindiko entitateen datuak. Hala ere, udalaz gaindiko entitateak ez direnez udalerririk zehatz batekoak, populazio-maila

Existen peculiaridades territoriales en cuanto a la distribución de la población: en Álava el 75% se concentra en la capital, en Bizkaia en la capital reside el 30%, pero este porcentaje alcanza el 70% si consideramos todos los municipios de más de 20.000 habitantes y, por último, en Gipuzkoa el 26% reside en la capital, llegando al 50% con el conjunto de los municipios de más de 20.000 habitantes.

En 2013 todos los municipios de la CAE continúan en el mismo estrato que el año anterior.

En este informe el análisis realizado por territorios históricos engloba los datos de las entidades municipales y de las supramunicipales. Sin embargo, dado que estas últimas no pueden imputarse a ningún municipio en

saillkatuta eskaini diren datuak udal-eremuko entitateei buruzkoak bakarrik dira<sup>1</sup>

exclusiva, los datos ofrecidos por estratos de población se refieren únicamente a las entidades de ámbito municipal<sup>1</sup>

Datuen azterketa egokia egiteko, kontuan izan behar dugu maila ezberdinetan aztertzen direla zerbitzu batzuk ( zaborren bilketa, ur hornidura, garraio publikoa,...) kudeaketan berezitasunak daudelako. Horrela, Vitoria-Gasteizen, Amvisa da ur hornidura zerbitzuaren arduraduna. Bere datuak udalerrikoekin multzokatuta dituen toki erakunde bat da, eta populazio mailaka egiten den azterketaren barnean dago. Bilbon eta Donostian zerbitzu hau ematen dutenak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Añarbeko Urak dira, hurrenez hurren. Horiek udalaz gaindiko enpresak dira eta lurraldeka egiten den azterketaren barnean daude.

Particularidades en la gestión (recogida de residuos, suministro de aguas, transporte público,...) implican diferencias en el nivel en el que se analizan algunos servicios, lo que debe tenerse en cuenta para una correcta evaluación de los datos. Así, en Vitoria-Gasteiz, Amvisa es la responsable de prestar el servicio de aguas. Es una entidad municipal por lo que sus datos se agrupan con los del ayuntamiento y se encuentran dentro del análisis por estratos. En Bilbao y Donostia / San Sebastián, el servicio lo prestan el Consorcio de aguas Bilbao Bizkaia y Aguas del Añarbe S.A. Éstas son entidades supramunicipales y sus datos son analizados a nivel territorial.

### 3. KOADROA / CUADRO Nº3 UDALEN SOZIETATE PUBLIKOAK. ENTITATEEN JARDUERAREN LURRALDEKAKO SAILKAPENA SOCIEDADES PÚBLICAS MUNICIPALES. CLASIFICACIÓN Y DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DE LAS ENTIDADES

JARDUERA/TIPO ACTIVIDAD	ARABA / ÁLAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA						EAE / CAPV					
POPUL. MAILA/ESTRATOS DE POBLACIÓN	1	2	3	4	5	G/T	1	2	3	4	5	G/T	1	2	3	4	5	G/T	1	2	3	4	5	G/T
TURISMOA / TURISMO													2	2	4				2		2	4		
KULTURA / CULTURA									1	1	2	4			1	3	4				2	1	5	8
KIROL-INSTALAZIOAK / INSTALACIONES DEPORTIVAS									3	1	4		2	1	3				2	3	2	7		
HIRI-GARRAIOA / TRANSPORTE URBANO											1	1			1	1							3	3
ENERGIA / ENERGÍA	1					1							5	0	5				1	5				6
ENPLEGU-SUSTAPENA/ FOMENTO EMPLEO									3	2		5			1	1					3	2	1	6
ADMINISTRAZIO-ZERBITZ/ SERVICIOS ADMINISTRAT.	1					1			1	1		2								1	1			3
BESTE BATZUK / OTROS DIVERSOS							1	2	1		2	6			2	1	3		1	2	1	2	3	9
URA, ZABORRA,GARBIKETA /AGUA, BASURA Y LIMPIEZA.					1	1									1						1			2
GARAPEN-AGENTZIAK /AGENCIAS DE DESARROLLO				1		1			1	1		2			0	1					1	2	1	4
LURRA, HIRIG. ETXEBI./SUELO URBAN.Y VIVIENDA	5	3	1		2	11	1	12	5	5	1	24	2	8	20	4	2	36	8	23	26	9	5	71
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>16</b>	<b>2</b>	<b>14</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>9</b>	<b>48</b>	<b>2</b>	<b>8</b>	<b>31</b>	<b>7</b>	<b>11</b>	<b>59</b>	<b>9</b>	<b>27</b>	<b>44</b>	<b>19</b>	<b>24</b>	<b>123</b>

<sup>1</sup> Koadroan erabili den laranja kolorea entitate guztien datuetarako erabiltzen da; berdea, aldiz, udal bakar bateko entitateei dagozkien datuak bakarrik aipatzen direnean. Los cuadros con datos de todas las entidades se presentan en color naranja, mientras que los que incluyen únicamente los relativos a las entidades municipales se muestran en color verde

Lurra, hirigintza eta etxebizitza jarduerak betetzen dute aztertutako udal enpresen % 58ren zeregina. Jarduera honen pisua, udal tamaina handitzen den neurrian, moteldu egiten da.

Datuak jasotzen diren udal enpresen artean, % 48 Gipuzkoan kokatzen dira, % 39 Bizkaian eta % 13 Araban.

Las actividades de suelo, urbanismo y vivienda ocupan al 58% de las empresas municipales analizadas. El peso de esta actividad disminuye a medida que aumenta el tamaño municipal.

El 48% de las empresas municipales de las que se recogen datos se localizan en Gipuzkoa, el 39% en Bizkaia y el 13% en Álava.

#### 4. KOADROA / CUADRO Nº 4 UDALAZ GAINDIKO ENPRESAK. JARDUERAREN SAILKAPENA EMPRESAS SUPRAMUNICIPALES. CLASIFICACIÓN POR ACTIVIDAD

JARDUERA/TIPO ACTIVIDAD	ARABA/ ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAPV
URA, ZABORRA, GARBIKETA/AGUA, BASURAS, LIMPIEZA		2	5	7
GARAPEN -AGENTZIAK/AGENCIAS DE DESARROLLO		2	5	7
LURRA, HIRIG. ETXEBI/SUELO, URB.Y VIVIENDA		1	2	3
HILTEGIAK/MATADEROS			1	1
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>		<b>5</b>	<b>13</b>	<b>18</b>

2013an hiltegi bat sartu da txostenean. Aztertutako gainerako udalaz gaindiko sozietateak 2012ko berdinak dira.

Agertzen diren udalaz gaindiko enpresen % 72 Gipuzkoan kokatzen da eta gainerako % 28 Bizkaian.

En 2013 se incorpora un matadero al estudio. El resto de sociedades supramunicipales analizadas son las mismas que en 2012.

El 72% de las empresas supramunicipales recogidas están radicadas en Gipuzkoa y el 28% restante en Bizkaia.



**UDAL SEKTORE PUBLIKOA / SECTOR PÚBLICO MUNICIPAL**

**DIRU-SARRERAK / INGRESOS**

**ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA**

**ANÁLISIS GLOBAL Y POR TERRITORIOS**

**5. KOADROA / CUADRO Nº 5**  
**DIRU-SARREREN BILAKAERA<sup>2</sup> / EVOLUCIÓN DE LOS INGRESOS<sup>2</sup>**

(Mila € / Miles de €)

EAE / CAPV	2012		2013		Δ % 2013/2012
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA BATERATUAK</b>	<b>3.563.161,17</b>		<b>3.505.224,37</b>		<b>-1,6</b>
<b>TOTAL INGRESOS CONSOLIDADOS</b>					

UDALAK ETA BEREN MENDEKO ENTITATEAK ENTIDADES MUNICIPALES Y DEPENDIENTES	Zenbatekoa/Importe	%	Zenbatekoa/Importe	%	Δ % 2013/2012
<b>DIRU-SARRERA BATERATUA.GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>3.180.631,31</b>	<b>89,3</b>	<b>3.136.060,71</b>	<b>89,5</b>	<b>-1,4</b>
INGRESOS CONSOLIDADOS SUBTOTAL					
TOKIKO ENTITATE TXIKIAK ENTIDADES LOCALES MENORES	26.265,67	0,7	23.046,73	0,7	-12,3
ADM.ERAKUNDE AUTONOMOAK ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS	121.759,06	3,4	119.747,13	3,4	-1,7
SOZETATE PUBLIKOAK SOCIEDADES PÚBLICAS	233.253,79	6,5	231.094,46	6,6	-0,9
UDALERRIAK AYUNTAMIENTOS	2.799.352,80	78,6	2.762.172,39	78,8	-1,3

UDALAZ GAINDIKO ENTITATEAK ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES	Zenbatekoa/Importe	%	Zenbatekoa/Importe	%	Δ % 2013/2012
<b>DIRU-SARRERA BATERATUA. GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>382.529,86</b>	<b>10,7</b>	<b>369.163,67</b>	<b>10,5</b>	<b>-3,5</b>
INGRESOS CONSOLIDADOS SUBTOTAL					
MANKOM., PARTZUERGOAK, KUADRILLAK... MANCOM., CONSORCIOS, CUADRILLAS...	255.738,32	7,2	247.773,27	7,1	-3,1
UDALAZ GAINDIKO ENPRESAK EMPRESAS SUPRAMUNICIPALES	126.791,54	3,6	121.390,39	3,5	-4,3

**Diru-sarreraren bilakaera**

- 2013. ekitaldian diru-sarrerek berriro ere aldaketa negatiboa izan duten arren, -% 1,6, aurreko urteko zenbatekotik, -% 5,6tik, urrun dago.
- EAEko 251 udalen artean, 147tan diru-sarreraren beherakada izan dute, iaz baino 11 gutxiagotan. Hiriburuetan izandako diru-sarreraren aldaketa ez da

**Evolución de los ingresos**

- En el ejercicio 2013 aunque los ingresos experimentan de nuevo una variación negativa del -1,6%, ésta se encuentra lejos de la caída del -5,6% del año anterior
- Entre los 251 ayuntamientos de la CAE, 147 han visto caer sus ingresos, 11 menos que el año anterior. Las variaciones de los ingresos de las

<sup>2</sup> Udalah gaindiko entitateen 2012ko baterakuntza 2013koarekin homogeneizatuta berregin da. La consolidación de los ingresos 2012 de las entidades supramunicipales se ha homogeneizado con la consolidación de 2013.

esanguratsua, Gasteizen bakarrik kapitales son mínimas cayendo murriztu dira. únicamente en Vitoria-Gasteiz.

- Udalaz gaindiko entitateetan murrizketa handiago izan da, -% 3,5, eta neurri handiagoan eragin die udalaz gaindiko enpresei, -% 4,3, gainontzeko udalaz gaindiko entitateei baino, -% 3,1.
- Diru-sarrerak guztira igo dira Araban % 5,3, eta Gipuzkoan, % 1,2, Bizkaian, berriz, jaitsi dira, -% 5,7.
- El recorte en los ingresos de las entidades supramunicipales ha sido más sustancial, -3,5%, y ha afectado en mayor medida a las empresas supramunicipales, -4,3%, que al resto de entes supramunicipales, -3,1%.
- Los ingresos totales suben en Álava, 5,3%, y en Gipuzkoa, 1,2%, mientras en Bizkaia disminuyen un -5,7%.


## 6.KOADROA. CUADRO N°6 DIRU-SARREREN SAILKAPEN EKONOMIKOA: BILAKAERA CLASIFICACIÓN ECONÓMICA DE LOS INGRESOS: EVOLUCIÓN

(Mila € / Miles de €)

	ARABA / ALAVA	Δ 13/12	BIZKAIA	Δ 13/12	GIPUZKOA	Δ 13/12	EAE / CAPV	Δ 13/12
<b>Zuzeneko zergak</b> Impuestos directos	116.768,73	%1,5	294.303,29	%3,0	234.301,42	%8,8	645.373,44	%4,7
<b>Zeharkako zergak</b> Impuestos indirectos	4.631,82	-%28,5	26.759,53	-%8,7	10.750,19	-%43,2	42.141,54	-%23,0
<b>Tasak eta best. diru-sarrerak</b> Tasas y otros ingresos	138.133,41	%21,6	431.796,28	-%2,6	393.575,52	-%5,7	963.505,21	-%1,1
<b>Zerga -bidezko diru-sarrerak</b> Ingresos tributarios	<b>259.533,96</b>	<b>%10,4</b>	<b>752.859,10</b>	<b>-%0,7</b>	<b>638.627,12</b>	<b>-%2,0</b>	<b>1.651.020,18</b>	<b>%0,4</b>
<b>Transferentzia arruntak</b> Transferencias corrientes	230.320,58	%13,8	781.544,34	-%4,5	485.754,21	%1,5	1.497.619,14	-%0,1
<b>Kapital - transferentziak</b> Transferencias de capital	35.204,03	%9,8	57.839,67	-%40,7	36.177,44	-%14,1	129.221,15	-%24,8
<b>Transferentziak</b> Transferencias	<b>265.524,62</b>	<b>%13,3</b>	<b>839.384,01</b>	<b>-%8,4</b>	<b>521.931,65</b>	<b>%0,2</b>	<b>1.626.840,28</b>	<b>-%2,7</b>
<b>Ondarezko diru-sarrerak</b> Ingresos patrimoniales	12.873,68	-%69,3	35.051,35	%9,4	19.127,14	%5,1	67.052,17	-%27,2
<b>Inber.errealeen besterentzea</b> Enaj.de inversiones reales	10.443,76	%344,6	33.837,12	-%21,7	38.944,23	%62,1	83.225,12	%19,6
<b>Finantza-aktiboak</b> Activos financieros	349,70	-%41,6	1.983,97	%6,3	14.410,07	%177,9	16.743,74	%118,8
<b>Bestelako diru-sarrerak</b> Otros ingresos	<b>23.667,15</b>	<b>-%47,2</b>	<b>70.872,44</b>	<b>-%8,1</b>	<b>72.481,44</b>	<b>%52,9</b>	<b>167.021,03</b>	<b>-%1,4</b>
<b>GUZT. ZORPETZERIK GABE</b> INGRESOS SIN ENDEUD.	<b>548.725,73</b>	<b>%6,7</b>	<b>1.663.115,56</b>	<b>-%5,0</b>	<b>1.233.040,21</b>	<b>%1,1</b>	<b>3.444.881,49</b>	<b>-%1,2</b>
<b>Zorpetzea</b> Endeudamiento	6.642,46	-%48,6	17.537,61	-%43,2	36.162,81	%6,7	60.342,88	-%22,3
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b> TOTAL INGRESOS	<b>555.368,19</b>	<b>%5,3</b>	<b>1.680.653,17</b>	<b>-%5,7</b>	<b>1.269.203,02</b>	<b>%1,2</b>	<b>3.505.224,37</b>	<b>-%1,6</b>

- Zerga-bidezko diru-sarreraren portaera globalak % 0,4ko geldialdia erakusten du. Zuzeneko zergapetzearen igoera, % 4,7, ez da nahikoa izan tasak eta beste diru-sarreraren, -% 1,1, eta zeharkako zergen, -% 23,0 portaera negatiboa konpentsatzeko. Lurraldeka, ikusten da Arabak hazkunde handia izan duela (% 10,4) eta Bizkaiak (-% 0,7) eta Gipuzkoak (-% 2,0) jaitsiera. Atalez atal egindako azterketak erakusten digu, Arabako emaitza positiboa tasak eta beste diru-sarreraren bilakaeragatik izan dela;aldiz, zuzeneko zergapetzeak beste lurraldeetan baino hazkunde txikiagoa izan du. Zeharkako zergapetzeak atzera egin du lurralde guztietan
- Transferentzi arruntak maila orokorrean egonkortu egin dira. Lurraldeka portaera desberdina erakusten dute: Bizkaian jaitsi dira, Gipuzkoan gelditu eta Araban gorakada handia izan dute.
- Bestelako diru-sarrerak beherakada motela izan dute.
- Azkenik, zorpetzetik lortutako diru-sarrerek orokorrean behera egin dute, batez ere, Arabako eta Bizkaiko murrizketa handiengatik. Gipuzkoan, berriz, zorpetzeak pisu erlatibo handiena duen lurraldean, 2012an beherakada handia izan ondoren 2013an % 6,7ko igoera izan dute
- El comportamiento global de los ingresos tributarios muestra un estancamiento del 0,4%. El aumento de la imposición directa 4,7% no ha podido compensar el comportamiento negativo de tasas y otros ingresos, -1,1% y de la imposición indirecta -23%. Por territorios se observa un fuerte avance en Álava (10,4%) y caídas en Bizkaia (-0.7%) y en Gipuzkoa, (-2%). El análisis por capítulos, nos indica que el resultado positivo en Álava es debido al comportamiento de los ingresos por tasas y otros, mientras que presenta el menor avance en imposición directa. La imposición indirecta retrocede en todos los territorios.
- Las transferencias corrientes se estancan a nivel global y muestran un comportamiento dispar por territorios: caen en Bizkaia, se estancan en Gipuzkoa y crecen con fuerza en Álava.
- El grupo de otros ingresos presenta una caída moderada.
- Por último, los ingresos por endeudamiento disminuyen globalmente por los fuertes recortes en Álava y Bizkaia, mientras en Gipuzkoa, donde presentan un mayor peso específico, se observa un incremento del 6,7%, tras la fuerte caída registrada en 2012.

**1.GRAFIKOA / GRÁFICO Nº 1**  
**DIRU-SARREREN SAILKAPEN EKONOMIKOA : EGITURA**  
**CLASIFICACIÓN ECONÓMICA DE LOS INGRESOS: ESTRUCTURA**



**Egitura Ekonomikoa**

- Diru-sarreraren ia % 47 transferentziak dira. Horietatik % 92 arruntak dira eta gainontzeko % 8 kapitalekoak.
- Zerga bidezko diru sarrerak ere % 47 dira.
- Zorpetzeak pisu galdu du eta sarrera guztien % 1,7koa bakarrik da.
- Lurralde historikoen arteko ezberdintasunak mantentzen dira:
  - Gipuzkoan pisu gehiago dute zerga bidezko diru-sarrerek eta zorpetzeak.
  - Transferentzietan ehuneko altuena duena Bizkaia da, arruntetan batez

**Estructura Económica**

- Alrededor del 47% de los ingresos sigue proviniendo de transferencias, de las cuales el 92% son corrientes y el 8% restante de capital.
- Los ingresos tributarios suponen asimismo un porcentaje del 47%.
- El endeudamiento pierde peso y representa únicamente el 1,7% del total.
- Se mantienen las diferencias entre los territorios históricos:
  - En Gipuzkoa tienen mayor peso los ingresos tributarios y el endeudamiento.
  - Bizkaia es el Territorio con un mayor peso de las transferencias,




ere.

- o Araban, transferentziek zerga-bidezko diru-sarrerak baino pisu erlatibo handiagoa dute, baina aipatzekoa da lurralde honetan kapital transferentziek duten pisu erlatiboa.

principalmente corrientes.

- o En Álava las transferencias tienen mayor peso relativo que los ingresos tributarios, aunque en este territorio destaca el peso relativo de las transferencias de capital.

## 2.GRAFIKOA / GRÁFICO Nº 2 DIRU-SARREREN LURRALDE BANAKETA / DISTRIBUCIÓN TERRITORIAL DE LOS INGRESOS



## 7.KOADROA / CUADRO Nº7 DIRU-SARREREN ITURRI NAGUSIAK / PRINCIPALES FUENTES DE INGRESO

(Mila € / Miles de €)

KODEA CÓDIGO	DIRU-SARRERA KONTZEPTUA CONCEPTO DE INGRESO	ZENBATEKOA IMFORTE	DIRU-SARRERA GUZTIEN G% % S/ TOTAL DE INGRESOS
420	<b>Foru Aldundiarenak</b> / De la Diputación Foral	1.369.355	%39,1
31	<b>Toki eskumeneko zerbitzuak eskaini edo jarduerak egiteagatikotasak</b> / Tasas por prestación de servicios o realización de actividades de competencia local	608.346	%17,4
112	<b>Ondasun higiezinaren gaineko zerga</b> / Impuesto sobre bienes inmuebles	361.269	%10,3
113	<b>Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga</b> / Impuesto s/ vehiculos tracción mecánica	130.695	%3,7
30	<b>Salmentak</b> / Ventas	128.239	%3,7
130	<b>Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga</b> / Impuesto sobre actividades económicas	102.911	%2,9
41	<b>Euskal Autonomia Erkidegokoak</b> / De La Comunidad Autónoma del País Vasco	87.761	%2,5
720	<b>Foru Aldundiarenak</b> / De la Diputación Foral	75.883	%2,2
32	<b>Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboagatikotasak edo aprobetxamendu bereziagatikotasak</b> / Tasas por la utilización privativa o aprovech. del dominio público local	69.770	%2,0
399	<b>Beste hainbat sarrera</b> / Otros ingresos diversos	57.544	%1,6
114	<b>Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga</b> / Impuesto sobre el incremento de valor de terrenos de naturaleza urbana	50.498	%1,4
93	<b>Epe luzera jasotako maileguak</b> / Préstamos recibidos a L/P	44.904	%1,3
71	<b>Euskal Autonomia Erkidegokoak</b> / De La Comunidad Autónoma del País Vasco	42.866	%1,2
282	<b>Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga</b> / Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras	42.139	%1,2
391	<b>Isunak</b> / Multas	34.988	%1,0
60	<b>Lurren besterenganatzea</b> / Enajenación de terrenos	30.434	%0,9
	<b>GAINERAKOAK</b> / RESTO	267.622	%7,6
	<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b> / TOTAL DE INGRESOS	<b>3.505.224</b>	<b>%100,0</b>


### **Diru-sarrera nagusienak**

- Diru-sarreraren pilaketa berriro igo da ondorengo hiru kontzeptutan: Foru Aldundietako transferentzia arruntak, tasak eta OHZ. Multzo hau dagoeneko kopuru osoaren % 67 da eta aurreko urteko ehunekoak baino 2 puntu gehiago.

### **Principales ingresos**


- Aumenta de nuevo la concentración de los ingresos en tres conceptos: transferencias corrientes de las DD FF, tasas e IBI, que suman ya el 67% del total, 2 puntos por encima del porcentaje del año anterior.

### **3.GRAFIKOA / GRÁFICO Nº 3 UDAL ZERGAZ DIRU-SARRERETAN LOS IMPUESTOS MUNICIPALES EN EL TOTAL DE INGRESOS**




- Udal zergak diru-sarreraren % 19,6 dira, aurreko urtekoak baino 0,9 puntu altuagoak.
- Los impuestos municipales representan el 19,6% del total, 0,9 puntos por encima del año anterior.

#### 4.GRAFIKOA / GRÁFICO Nº 4 UDAL ZERGAK. IMPUESTOS MUNICIPALES



- Zerga zuzenen garrantziak berriro ere gora egin du, zerga guztien ia % 94 da. Udaletxeei diru gehien ematen dien zerga OHZ da, udal zerga bidezko diru-sarreraren % 52,6.
- Los impuestos directos aumentan también de nuevo su importancia y aportan casi el 94% del conjunto de impuestos. El IBI es el impuesto que aporta mayores recursos a los ayuntamientos, con el 52,6% de los ingresos totales por impuestos municipales.


#### 5.GRAFIKOA / GRÁFICO Nº5 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK DIRU-SARRERETAN LAS TRANSFERENCIAS CORRIENTES EN EL TOTAL DE INGRESOS



- 1- Bestelako diru-sarrerak / Resto de ingresos
- 2- Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes
- 2.a- Estatutik / Estado
- 2.b- Euskal Autonomia Erkidegotik / De la Comunidad Autónoma del País Vasco
- 2.c- Foru Aldunditik / De la Diputación Foral
- 2.d- Gainerako transferentziak / Resto de transferencias

- Transferentzia arruntak diru-sarrera guztien % 42,7 dira eta, batez ere, Foru Aldundietatik datoz (% 91).
- Las transferencias corrientes suponen un 42,7% del total de ingresos, y proceden en su mayor parte (91%) de las DD.FF.

## 6.GRAFIKOA / GRÁFICO N°6 KAPITAL TRANSFERENTZIAK DIRU-SARRERETAN LAS TRANSFERENCIAS DE CAPITAL EN EL TOTAL DE INGRESOS



- 1- Bestelako diru-sarrerak / Resto de ingresos
- 2- Kapital transferentziak / Transferencias de capital
- 2.a- Estatutik / Estado
- 2.b- Euskal Autonomia Erkidegotik / De la Comunidad Autónoma del País Vasco
- 2.c- Foru Aldunditik / De la Diputación Foral
- 2.d- Gainerako transferentziak / Resto de transferencias

- Kapital transferentziak berriz ere murriztu dira eta diru-sarrera guztien % 3,7 dira.
- Las transferencias de capital de nuevo reducen su presencia hasta el 3,7% del total de ingresos.
- % 59 Foru Aldundietatik dator eta % 33 Autonomia Erkidegotik. Aipatzekoa da, Estatutik datozenak ozta-ozta guztien % 0,2 direla
- El 59% procede de las DD.FF y el 33% de la Comunidad Autónoma. Destacar que las provenientes del Estado apenas alcanzan 0,2% del total de transferencias de capital.

## 8.KOADROA / CUADRO N°8 BIZTANLEKO DIRU-SARRERAK / INGRESOS POR HABITANTE

(Euro / Euros)

	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE / CAPV
<b>Zerga bidezko diru-sarrerak</b> Ingresos tributarios	811	658	901	760
<b>Transferentziak</b> Transferencias	830	734	737	749
<b>Bestelako diru-sarrerak</b> Otros ingresos	74	62	102	77
<b>GUZT. ZORPETZERIK GABE</b> INGRESOS SIN END.	1.715	1.454	1.740	1.585
<b>Zorpetzea</b> Endeudamiento	21	15	51	28
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b> TOTAL INGRESOS	1.735	1.469	1.791	1.613

### ***Biztanleko diru-sarrerak***

- EAeko biztanleko diru-sarrerak 30 € murriztu dira eta 1.613 € dira. Horietako 28 € zorpetzeari dagozkio.
- Araban igo egin dira, Gipuzkoan gutxi aldatu dira eta Bizkaian, aldiz, jaitsi egin dira.
- Biztanleko diru-sarreretan, Gipuzkoak eta Arabak kopuru antzekoa dute, Bizkaiaren gainetik. Eraitza hau zerga bidezko diru-sarreretan oinarritzen da.
- Araba, gainera, biztanleko transferentzietan lehenengo postuan kokatu da. Gainontzeko taldeetako burua Gipuzkoa da.

### ***Ingresos por habitante***

- Los ingresos por habitante de la CAE bajan 30€, quedando situados en 1.613€ de los cuales 28€ corresponden al endeudamiento.
- Mientras en Álava crecen, en Gipuzkoa prácticamente no varían y en Bizkaia disminuyen.
- Gipuzkoa y Álava muestran una cifra muy similar en euros por habitante. Este resultado se apoya en los ingresos tributarios.
- Álava ocupa, además, el primer lugar en transferencias por habitante mientras el resto de grupos los encabeza Gipuzkoa.



UDAL-EREMUKO ENTITATEAK / ENTIDADES DE ÁMBITO MUNICIPAL

DIRU-SARRERAK

INGRESOS

POPULAZIO-MAILAKA / ESTRATOS DE POBLACIÓN

9.KOADROA / CUADRO Nº9

DIRU- SARREREN SAILKAPEN EKONOMIKOA: BILAKAERA


CLASIFICACIÓN ECONÓMICA DE LOS INGRESOS: EVOLUCIÓN

	<=1.000		de 1.001etik a 5.000ra		de 5.001etik a 20.000ra		>20.000 Hirib. ezik/ exc.capitales		Hiriburuak / Capitales		EAE / CAPV	
	000€	Δ 13/12	000€	Δ 13/12	000€	Δ 13/12	000€	Δ 13/12	000€	Δ 13/12	000€	Δ 13/12
<b>Zerga -bidezko diru-sarrerak</b> Ingresos tributarios	24.375,87	-4,5%	101.267,59	-14,8%	336.104,91	-1,8%	332.393,05	3,3%	600.844,32	3,9%	1.394.985,75	0,6%
<b>Transferentziak</b> Transferencias	49.537,07	-12,6%	133.788,39	-4,3%	374.999,09	-3,4%	383.306,69	-9,7%	593.148,16	5,8%	1.534.779,41	-2,2%
<b>Bestelako diru-sarrerak</b> Otros ingresos	6.376,32	3,3%	20.256,15	3,9%	46.327,61	51,2%	28.541,44	4,4%	56.603,60	-24,7%	158.105,11	-0,5%
<b>GUZT. ZORPETZERIK GABE</b> INGRESOS SIN ENDEUDAMIENTO	80.289,25	-9,1%	255.312,14	-8,2%	757.431,61	-0,5%	744.241,18	-3,8%	1.250.596,08	3,0%	3.087.870,26	-0,9%
<b>Zorpetzea</b> Endeudamiento	948,13	-68,8%	5.869,29	-41,4%	11.983,47	-21,7%	11.993,47	-40,5%	19.036,65	-12,2%	49.831,01	-29,0%
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b> TOTAL INGRESOS	81.237,38	-11,1%	261.181,43	-9,4%	769.415,08	-0,9%	756.234,65	-4,7%	1.269.632,73	2,7%	3.137.701,28	-1,5%

**Diru-sarreraren bilakaera populazio-mailakaren arabera / Evolución de los ingresos por estratos**

- Diru-sarrerak, bai guztira eta bai zorpetzerik gabe, hiriburuetan ez ezik, beste populazio-maila guztietan jaitsi dira. Jaitsiera garrantzitsuenak 1. eta 2. populazio mailetan izan dira.
- Zerga-bidezko diru-sarreraren taldeak aurrera egin du 4. eta 5. populazio-mailetan eta gainontzekoetan, jaitsi. Nabarmena da 2. populazio-mailaren jaitsiera, -% 14,8.
- Bai transferentzia arruntak bai kapital transferentziak berriro jaitsi egin dira, hiriburuetan izan ezik.
- Bestelako diru-sarreraren taldea EAE osoan jaitsi da (-% 0,5), baina mailaka, hiriburuetan bakarrik gutxitu da. Aipatzekoa da 3. Populazio-mailaren igoera, % 51,2.
- Los ingresos, tanto totales como sin endeudamiento, descienden en todos los estratos, excepto en el de las capitales. Las caídas más importantes son las de los estratos 1 y 2.
- Los ingresos tributarios avanzan en los estratos 4 y 5 y caen en el resto. Destaca la bajada del estrato 2, -14,8%.
- Caen de nuevo las transferencias tanto corrientes como de capital salvo en el estrato de las capitales.
- El grupo de otros ingresos baja en el conjunto de la CAPV (-0,5%), aunque por estratos, únicamente cae en las capitales. Destaca el aumento del tercer estrato, un 51,2%.


**7.GRAFIKOA / GRÁFICO Nº7**  
**DIRU-SARREREN SAILKAPEN EKONOMIKOA : EGITURA**  
**CLASIFICACIÓN ECONÓMICA DE LOS INGRESOS: ESTRUCTURA**



- Populazioa handitzen den heinean, zerga-bidezko diru-sarreraren protagonismoa indartzen da.
- Beherakada handia izan arren, populazio-maila oso txikietan transferentziek, batez ere, kapital transferentziek, pisu handiarekin jarraitzen dute.
- Zerga bidezko sarreraren eta transferentzia arruntaren batuketaren pisu erlatiboa handitu da; 2013an % 91ko pisua lortu dute, 2012an % 89 eta 2011an % 86 izan zen.
- A medida que crece la población se refuerza el protagonismo de los ingresos tributarios.
- A pesar de su fuerte caída, en las poblaciones más pequeñas siguen teniendo gran importancia las transferencias, especialmente las de capital.
- La agregación de ingresos tributarios y transferencias corrientes aumenta su peso llegando a concentrar casi el 91% del total frente al 89% en 2012 o el 86% en 2011.



## 8.GRAFIKOA / GRÁFICO Nº8 BIZTANLEKO DIRU-SARRERAK / INGRESOS POR HABITANTE



- |   |  |
|---|--|
| <p><b>Biztanleko diru-sarrerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleko diru-sarrerak, hiriburuak osatzen duten populazio-mailan izan ezik, jaitsi egiten dira biztanleen kopurua hazten den heinean.</li> <li>• Udal txikienek dituzte kopuru altuenak, finantzaketarako foru funtsari dagozkion transferentzietan kopuru minimoak jartzen direlako.</li> <li>• Hiriburuak bigarren postuan daude biztanleko diru-sarreraren sailkapenean, zerga-gaitasun handiagoa dutelako eta hiriburuak foru funtsetan daukaten tratamendu bereziagatik.</li> </ul> | <p><b>Ingresos por habitante</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Si exceptuamos el estrato formado por las capitales, en lo que respecta a ingresos por habitante, éstos caen a medida que aumenta la población.</li> <li>• Los municipios más pequeños presentan las cifras más altas, debido a la fijación de importes mínimos en las transferencias de los fondos forales de financiación.</li> <li>• La mayor capacidad tributaria y el tratamiento específico de las capitales en su participación en los fondos forales, las sitúa en segundo lugar en el ranking de ingresos por habitante.</li> </ul> |
|---|--|

- EAEko biztanleko batez besteko diru-sarrera 1.444€koa da, 2012koa baino 18 euro txikiagoa.
- EAEko batez bestekoaren azpitik 3. eta, batez ere, 4. populazio-mailak daude. Azken honek, biztanleko zerga-bidezko diru-sarrera txikiak dituelako.
- Hiriburuaren emaitzak hauek dira:
  - Vitoria-Gasteiz: 1.705€
  - Donostia: 1.856€
  - Bilbao: 1.531€
- El ingreso medio por habitante de la CAPV es de 1.444€, 18 euros inferior al de 2012.
- Por debajo de la media se sitúan los estratos 3 y, sobre todo, el 4. Este último presenta los menores ingresos por habitante tanto tributarios como por transferencias.
- Los resultados de las capitales son los siguientes:
  - Vitoria-Gasteiz: 1.705€
  - San Sebastián: 1.856€
  - Bilbao: 1.531€

## 10.KOADROA / CUADRO Nº10 BIZTANLEKO ETA POPULAZIO-MAILEN ARABERAKO PRESIO FISKALA<sup>3</sup> PRESIÓN FISCAL POR HABITANTE Y ESTRATO<sup>3</sup>

€ biztanleko/ € por habitante

POPULAZIO-MAILA ESTRATOS	OHZ IBI	TMIZ IVTM	HLBGZ IIVTNU	JEZ IAE	EIOZ ICIO	GUZTIRA TOTAL
1- <=1000	175	68	4	39	33	318
2- de 1.001etik a 5.000ra	162	67	14	71	21	335
3- de 5.001etik a 20.000ra	162	67	12	46	30	317
4- >20.001 (Hiriburuak ezik/exc. Capi)	164	56	14	39	12	284
<b>5- Hiriburuak/Capitales</b>	<b>172</b>	<b>56</b>	<b>43</b>	<b>50</b>	<b>17</b>	<b>338</b>
VITORIA- GASTEIZ	182	59	69	59	13	382
BILBAO	137	51	16	41	18	263
DONOSTIA-SS	226	64	59	57	18	425
<b>EAE/ CAPV</b>	<b>166</b>	<b>60</b>	<b>23</b>	<b>47</b>	<b>19</b>	<b>316</b>

- Biztanleko presio fiskala % 2,6 igo 2012. urtearekin alderatuta. OHZ, diru-bilketa handiena duen zerga, % 6 igo da eta JEZ % 10. Aldiz, EIOZ -% 22 jaitsi da. Zerga horren erorketa etengabea izan da: 2007. urtean, goia
- La presión fiscal global por habitante avanza un 2,6% respecto a 2012. El impuesto con mayor recaudación, el IBI, crece un 6%, y el IAE, un 10%. Por el contrario, la recaudación por el ICIO baja un -22%. La caída de este

<sup>3</sup> Presio fiskala Zuzeneko eta Zeharkako zergetatik abiatuz definituta, tasak ez dira sartu kontabilizaziorako irizpideak oso ezberdinak izaten direlako.

Presión fiscal por habitante definida a partir de los impuestos directos e indirectos, sin incluir tasas por los diferentes criterios que se siguen en su contabilización.

jo zuenean, 57 eurokoa zen eta 2013. urtean, 19 eurokoa. Zergaren kargapean dauden jardueren beherakada izan da arrazoi nagusia.

- Biztanleko presio fiskal txikiena duena 4. populazio-maila da eta altuena hiriburuena, nahiz eta Bilboren datua maila guztiena baino baxuagoa den.
- Hiriburuek eta 1. populazio-mailak OHZn kopuru altuagoak dituzte.
- Vitoria-Gasteiz eta Donostiak biztanleko presio-fiskala Bilbok baino askoz handiagoa dute.
- La presión fiscal por habitante más baja corresponde al estrato 4 y la más alta a las capitales, aunque el dato de Bilbao es inferior al de la totalidad de los estratos.
- Los capitales y el estrato 1 presentan los valores más altos en IBI.
- Vitoria-Gasteiz y San Sebastián presentan una presión fiscal por habitante muy superior a la de Bilbao.

## 11.KOADROA / CUADRO N°11 ZERGA-BILKETAREN ERAGINKORTASUNA / EFICACIA RECAUDATORIA

POPULAZIO-MAILA ESTRATOS	OHZ IBI	TMIZ IVTM	HLBGZ IIVTNU	JEZ IAE	EIOZ ICIO	GUZTIRA TOTAL
1- <=1000	94,3%	94,4%	86,9%	76,3%	82,7%	90,9%
2- de 1.001etik a 5.000ra	93,6%	92,0%	84,0%	87,0%	88,5%	91,2%
3- de 5.001etik a 20.000ra	94,6%	92,8%	70,3%	83,1%	82,5%	90,5%
4- >20.001 (Hiriburuak ezik/exc. Capitales)	93,9%	92,1%	84,2%	89,9%	80,4%	92,0%
<b>5- Hiriburuak/Capitales</b>	<b>95,3%</b>	<b>92,2%</b>	<b>86,4%</b>	<b>59,3%</b>	<b>73,1%</b>	<b>87,2%</b>
VITORIA- GASTEIZ	91,8%	93,2%	83,8%	27,3%	73,0%	80,0%
BILBAO	97,4%	91,0%	89,6%	71,3%	79,1%	90,4%
DONOSTIA-SS	96,5%	92,8%	88,7%	86,5%	61,6%	92,0%
<b>EAE/ CAPV</b>	<b>94,6%</b>	<b>92,4%</b>	<b>83,8%</b>	<b>76,2%</b>	<b>79,8%</b>	<b>89,7%</b>

- Zerga-bilketaren eraginkortasuna (diru-bilketa likidoa / aitorturiko eskubide garbiak) 5. mailako udalerrien % 87,2ren eta 4.mailako udalerrien % 92,0ren artean kokatzen da.
- Zerga-bilketaren eraginkortasuna pixka bat hobetu da % 89,7ra arte
- Emaitzarik onena OHZri dagokio, hau % 95era hurbiltzen da.
- 2013an JEZk bakarrik bere
- La eficacia recaudatoria (recaudación líquida / derechos reconocidos netos) oscila entre el 87,2% de los municipios del estrato 5 y el 92,0% de los municipios del estrato 4.
- La eficacia global mejora ligeramente hasta el 89,7%.
- El mejor resultado corresponde al IBI, cerca del 95%.
- En 2013 solo el IAE empeora su

eraginkortasuna okertu du. Beste zergek aurrera egin dute, batez ere, EIOZk.

- Hiriburuen artean, daturik onena Donostian ikusten da, % 92,0. Bestalde, Vitoria-Gasteizek atzera egin du eta 12 puntura geratzen da, % 80,0. Azken kasu honetan, JEZren maila eskasa, % 27,3, nabarmentzen da<sup>4</sup>

eficacia recaudatoria. El resto de figuras impositivas progresa, sobre todo, el ICIO.

- Entre las capitales el mejor dato se registra en San Sebastián con el 92,0%, mientras Vitoria-Gasteiz ha retrocedido y queda a 12 puntos, con el 80,0%, destacando el bajo nivel que presenta en relación al IAE, con un 27,3%<sup>4</sup>

## 12.KOADROA / CUADRO N°12 PRESIO FISKAL HANDIENA DUTEN UDALERRIAK MUNICIPIOS CON MAYOR PRESIÓN FISCAL

(Euro / Euros)

UDALERRIAK AYUNTAMIENTOS	POP.-MAILA ESTRATO	LH TH	OHZ/BIZ IBI/HAB	TMIZ/BIZ IVTM/HAB	HLBGZ/BIZ IIVTNU/HAB	JEZ/BIZ IAE/HAB	EIOZ/BIZ ICIO/HAB	GUZTIRA/BIZ TOTAL/HAB
ZIERBENA	2	BIZKAIA	124	48	-	2.157	62	2.390
MUSKIZ	3	BIZKAIA	176	62	1	334	880	1.453
KUARTANTO	1	ARABA	1.063	64	-	196	18	1.341
ZAMUDIO	2	BIZKAIA	308	124	41	585	64	1.122
ADUNA	1	GIPUZKOA	344	183	-	137	176	840
LANTARÓN	1	ARABA	366	57	-	244	154	821
IZURTZA	1	BIZKAIA	341	73	-	338	12	764
OLABERRIA	1	GIPUZKOA	316	99	10	183	92	700
ZIGOITIA	2	ARABA	408	54	27	136	21	647
LOIU	2	BIZKAIA	295	123	33	169	19	640
<b>EAE/ CAPV</b>			<b>166</b>	<b>60</b>	<b>23</b>	<b>47</b>	<b>19</b>	<b>316</b>

PRESIO FISKALA : ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGAK  
PRESION FISCAL : IMPUESTOS DIRECTOS E IMPUESTOS INDIRECTOS

- Zerrenda honen buruan dauden udalerriek duten ezaugarria, populazio baxua da. Hauen artean handiena, 3. mailaren behealdean kokaturik dagoen Muskiz, 7.491 biztanlerekin. Aldi berean, herri
- Los municipios que encabezan la lista se caracterizan por su baja población: El mayor de ellos, Muskiz, con 7.491 habitantes, se sitúa en la parte baja del estrato 3. En paralelo, en dichos municipios se encuentran

<sup>4</sup> Datu honen arrazoiatariko bat Arabako hiriburuan zerga hau ordaintzeko epeak hurrengo ekitaldiko otsailera arte irauten duela izan daiteke.

Una de las razones de este dato puede encontrarse en plazo de pago de este impuesto que en la capital alavesa llega hasta febrero del ejercicio siguiente.

hauetan azpiegitura garrantzitsuak (Portua eta Bilboko Aireportua, Teknologi parkea...) eta/ edo enpresa handiak daude.

- Zierbena lehenengo lekuan dago, bertan daudelako Bilboko Portua eta Petronor, Bahía de Bizkaia electricidad edo Bahía de Bizkaia Gas bezalako enpresak
- Muskizen aldiz, Petronorrek izan dezakeen efektua murriztu egiten da biztanle gehiago dituelako. Hala ere, JEZn zerrendako laugarren postuan dago. Biztanle bakoitzak guztira jasaten duen presio fiskalaren zerrendan bigarren postuan egotea, koke plantan egin dituen obregatik da.
- Adierazgarria da Kuartangok duen biztanleko OHZ altua. Honen arrazoia, OHZk ondasun higiezin landatar zein hiritarrak eta baita ezaugarri bereziak dituzten ondasunak zergapetzen ditu. Azken hauen artean parke eolikoak daude, eta Kuartangon Badaiaiko Parke Eolicoa dago.

infraestructuras significativas (Puerto y Aeropuerto de Bilbao, Parque tecnológico) y/o grandes empresas.

- Así, la lista la encabeza Zierbena en cuyo término se enclava el Puerto de Bilbao y con importantes empresas como Petronor, Bahía de Bizkaia electricidad o Bahía de Bizkaia Gas.
- Muskiz, como consecuencia de su mayor población, ve más diluido el efecto que origina la presencia de Petronor en el municipio. Aún así, ocupa el cuarto lugar en el ranking del IAE. Su escalada hasta el segundo puesto se debe, en gran medida, a la realización de las obras de la planta de coque.
- Llama la atención el elevado IBI por habitante de Kuartango. La razón es que el IBI grava bienes inmuebles urbanos y rústicos y, también, bienes de características especiales entre los que se encuentran los parques eólicos y en Kuartango se encuentra el Parque eólico de Badaia



**UDAL SEKTORE PUBLIKOA / SECTOR PÚBLICO MUNICIPAL**

**GASTUAK / GASTOS**

**ANALISI OROKORRA ETA LURRALDEKA**

**ANÁLISIS GLOBAL Y POR TERRITORIOS**

**13.KOADROA / CUADRO Nº13**  
**GASTUEN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DE LOS GASTOS**

(Mila € / Miles de €)

EAE / CAPV	2012		2013		Δ % 2013/2012
<b>GASTUAK, GUZTIRA BATERATUAK</b>	<b>3.493.081,06</b>		<b>3.469.117,09</b>		<b>-0,7</b>
<b>TOTAL GASTOS CONSOLIDADOS</b>					

<b>UDALAK ETA BEREN MENDEKO ENTITATEAK</b> ENTIDADES MUNICIPALES Y DEPENDIENTES	Zenbatekoa/Importe	%	Zenbatekoa/Importe	%	Δ % 2013/2012
<b>GASTU BATERATUA.GUZTIZKO PARTZIALA</b> GASTOS CONSOLIDADO SUBTOTAL	<b>3.064.845,08</b>	<b>87,7</b>	<b>3.020.154,61</b>	<b>87,1</b>	<b>-1,5</b>
<b>TOKIKO ENTITATE TXIKIAK</b> ENTIDADES LOCALES MENORES	27.914,69	0,8	25.483,94	0,7	-8,7
<b>ADM.ERAKUNDE AUTONOMOAK</b> ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS	219.547,16	6,3	213.881,48	6,2	-2,6
<b>SOZETATE PUBLIKOAK</b> SOCIEDADES PÚBLICAS	387.362,28	11,1	374.989,68	10,8	-3,2
<b>UDALERRIAK</b> AYUNTAMIENTOS	2.430.020,95	69,6	2.405.799,52	69,3	-1,0

<b>UDALAZ GAINDIKO ENTITATEAK</b> ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES	Zenbatekoa/Importe	%	Zenbatekoa/Importe	%	Δ % 2013/2012
<b>GASTU BATERATUA. GUZTIZKO PARTZIALA</b> GASTOS CONSOLIDADOS SUBTOTAL	<b>428.235,98</b>	<b>12,3</b>	<b>448.962,48</b>	<b>12,9</b>	<b>4,8</b>
<b>MANKOM., PARTZUERGOAK, KUADRILLAK...</b> MANCOM., CONSORCIOS, CUADRILLAS...	297.579,66	8,5	306.716,03	8,8	3,1
<b>UDALAZ GAINDIKO ENPRESAK</b> EMPRESAS SUPRAMUNICIPALES	130.656,33	3,7	142.246,44	4,1	8,9

**Gastuen bilakaera**

- Gastuen jaitiera, aurreko urteetakoekin alderatuta, txikiagoa izan da, -% 0,7 eta udalerrri esparruko erakundeetan bakarrik gertatu da, -%1,5.
- Udalaz gaindiko erakundeetan alderantziz gertatzen da, gastuak igo egiten dira eta batez ere udalaz gaindiko enpresetan, % 8,9.

**Evolución de los gastos**

- La reducción de los gastos, -0,7%, es inferior a la de los periodos precedentes y se produce únicamente en las entidades de ámbito municipal, -1,5%.
- Al contrario, en las entidades supramunicipales los gastos aumentan, particularmente en el grupo de las empresas supramunicipales, 8,9%.

**14.KOADROA / CUADRO Nº14**  
**GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOA: BILAKAERA**  
**CLASIFICACIÓN ECONÓMICA DE LOS GASTOS: EVOLUCIÓN**

(Mila € / Miles de €)

	ARABA / ÁLAVA	Δ 13/12	BIZKAIA	Δ 13/12	GIPUZKOA	Δ 13/12	EAE / CAPV	Δ 13/12
<b>Langileria-gastuak</b> Gastos de personal	187.322,6	%4,2	546.836,61	%2,1	371.242,03	%3,8	1.105.401,21	%3,0
<b>Ond. arrunt eta zerbitzuen gast.</b> Gastos en bienes corrientes y serv.	228.366,3	%6,6	736.459,13	-%1,1	553.044,55	%0,2	1.517.869,97	%0,4
<b>Funtzionamendu-Gastuak</b> Gastos de funcionamiento	<b>415.688,9</b>	<b>%5,5</b>	<b>1.283.295,74</b>	<b>%0,2</b>	<b>924.286,58</b>	<b>%1,6</b>	<b>2.623.271,19</b>	<b>%1,5</b>
<b>Inbertsio errealak</b> Inversiones reales	63.755,6	-%3,9	201.837,3	-%31,0	128.371,3	-%17,0	393.964,23	-%23,3
<b>Kapital-transferentziak</b> Transferencias de capital	1.070,7	-%62,8	5.317,3	-%41,4	6.056,6	%5,0	12.444,61	-%29,8
<b>Inbertsio-Gastuak</b> Gastos de inversión	<b>64.826,3</b>	<b>-%6,3</b>	<b>207.154,65</b>	<b>-%31,4</b>	<b>134.427,85</b>	<b>-%16,2</b>	<b>406.408,84</b>	<b>-%23,5</b>
<b>Transferentzia arruntak</b> Transferencias corrientes	26.802,2	%30,1	98.480,6	-%3,3	55.196,9	%8,2	180.479,74	%4,1
<b>Finantza-aktiboak</b> Activos financieros	342,0	-%69,3	15.080,4	%79,1	36.860,8	%325,8	52.283,17	%187,4
<b>Bestelako gastuak</b> Otros gastos	<b>27.144,2</b>	<b>%25,0</b>	<b>113.561,04</b>	<b>%3,0</b>	<b>92.057,64</b>	<b>%54,2</b>	<b>232.762,91</b>	<b>%21,5</b>
<b>FIN. KARGARIK GABEKO GASTUAK</b> GASTOS SIN CARGA FINANCIERA	<b>507.659,4</b>	<b>%4,7</b>	<b>1.604.011,4</b>	<b>-%5,2</b>	<b>1.150.772,1</b>	<b>%1,9</b>	<b>3.262.442,9</b>	<b>-%1,3</b>
<b>Finantza-gastuak</b> Gastos financieros	3.806,9	-%9,6	6.534,9	%3,9	21.414,8	%24,1	31.756,63	%14,4
<b>Finantza-pasiboak</b> Pasivos financieros	20.979,9	%15,7	66.142,6	%21,5	87.795,0	%2,5	174.917,53	%10,5
<b>Finantza-Karga</b> Carga financiera	<b>24.786,8</b>	<b>%11,0</b>	<b>72.677,56</b>	<b>%19,6</b>	<b>109.209,78</b>	<b>%6,1</b>	<b>206.674,15</b>	<b>%11,1</b>
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b> TOTAL GASTOS	<b>532.446,2</b>	<b>%5,0</b>	<b>1.676.688,99</b>	<b>-%4,4</b>	<b>1.259.981,85</b>	<b>%2,2</b>	<b>3.469.117,09</b>	<b>-%0,7</b>

**Sailkapen Ekonomikoa**

- Sailkapen ekonomikoaren arabera, inbertsio-gastu taldeak bakarrik du beherakada ,-% 23,5, bai inbertsio errealak eta bai kapital transferentziak murriztu direlako.
- Funtzionamendu gastuak % 1,5 igo dira, gorakada bi kapituluetan izan duten arren, pertsonal gastuetan da nabarmenena.
- Finantza-kargaren gorakada orokorra izan da; batez ere, Bizkaian esanguratsua izan da. Baina, lurralde

**Clasificación Económica**

